EBAZPENA, 2008ko maiatzaren 16koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariarena, irakaspostu bereziak betetzeko meritu-lehiaketarako, lanpostuak hornitzeko deialdien destinoen behin-behineko adjudikazioa argitaratzen duena.

Irakaspostu bereziak betetzeko meritu-lehiaketarako zereginak ikasteko geletan– lanpostuak hornitzeko deialdiei dagozkien oinarri-arau orokorretariko amazortzigarrenean xedatutakoarekin (2007ko abenduaren 18ko Agindua, urtarrilaren 14ko EHAAn argitaratua) bat etorriz, eta lehiaketariei puntuazio behin betiko emanik, honakoa

Horregatik guztiarengatik,

ERABAKI DUT:

Lehena.- 2007ko abenduaren 18ko Aginduaren bidez iragarritako lanpostuak hornitzeko deialdietan lortutako destinoen behin-behineko adjudikazioa argitaratzea. Adjudikazio hori Ebaspen honen eranskinean dago.

Bigarrena.- Interesatuek erreklamazioak edo parte hartu dutenek emandako destinoei uko egiteko aukera izango dute Langileriaren Kudeaketa zuzendariari bidalitako idazkiaren bidez, martxoaren 17tik 22ra, bi egun horiek barne.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko maiatzaren 16an

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

ITZIAR GARAIZAR AGIRRE